

2019.06.03 PRENTSA OHARRA

Etxepare - LABORAL Kutxa Itzulpen Sarian izena emateko epea ireki da

- Hautagaiak aurkezteko epea ekainaren 28ra arte egongo da irekita.
- Saria 2015. urtean sortu zuten Etxepare Euskal Institutuak eta LABORAL Kutxak euskarazko literaturaren itzulpengintza sustatu eta balioan jartzeko.

Etxepare-LABORAL Kutxa Itzulpen Sariak 5. edizioa izango du aurten, eta bertara hautagaiak aurkezteko epea gaur bertan ireki da, ekainaren 3an. Ekimenak, jatorriz euskaraz idatzitako literatura-lanen itzulpenak saritzea du xede, itzulpenak baitira euskal idazleak eta euren lanak nazioartean ezagutzera emateko zubia. Halaber, sari honek itzultzaileen ezkutuko lana ere nabarmendu nahi du.

Mundu osoko itzultzaile eta argitaletxeak aurkeztu daitezke sarira, betiere ondorengo baldintzak betetzen badituzte: aurkeztutako liburua jatorriz euskaraz idatzitako eta argitaratutako literatura-lan baten itzulpena izatea, eta itzulpen hori 2018. urtean argitaratutakoa izatea. Eskabideari dagokionez, itzultzaileak berak, argitaletxeak edota liburugintza, literatura edo itzulpengintzaren arloko beste eragile batek egin dezake.

4.000 euroko sari bakarra emango da, itzultzaileak eta argitaletxeak erdibana banatzekoa. Izan ere, irabazleak nortzuk diren erabakitzeko orduan aintzat hartzen dira bai itzulpenaren kalitatea, baita literatura-lana argitaratu duen argitaletxearen sustapen plana ere. Halaber, 2.000 euroko laguntza jasoko dute irabazleek saria jasotzera Euskal Herrira etortzeko edota literatura-lana

argitaratu den herrialdean sustapen lanarekin (aurkezpenak, publizitate kanpainak, etab.) jarraitzeko.

Hautagaiak aurkezteko epea ekainaren 28ra arte egongo da zabalik, eta sari banaketa ekitaldia Itzultzaileen Nazioarteko Egunaren inguruan (irailak 30) izango da, Etxepare Euskal Institutuak eta Laboral Kutxak aurrerago adostuko duten lekuan eta egunean. Epaimahaia, berriz, itzulpengintzaren arloko, Etxepare Euskal Institutuko eta LABORAL Kutxako hainbat ordezkari osatuko dute.

Sari honek Etxepare Euskal Institutuak euskal kultura sustatu eta nazioartean ezagutzera emateko lantzen dituen lan-ildoekin bat egiten du. Literaturaren alorrean, itzulpenak egiteko diru-laguntzak eskaintzeaz gain, euskal idazleentzat bidaia-poltsak ematen ditu eta nazioarteko liburu azoka eta literatura jaialdietan euskal idazleek parte hartu eta euren lanak aurkeztea ahalbidetzen du. Halaber, sari honen bitartez LABORAL Kutxak euskara eta euskal kulturarekiko konpromisoa berresten du.

Sariaren oinarriak www.etxepare.eus webgunean argitaratuko dira ekainaren 3an.

Aurreko urteetako irabazleak:

2015

Isaac Xubín eta Kalandraka argitaletxea

Tempo de exilio (Joseba Sarrionandia)

Poesia antologia

Galegoa

2016

Nami Kaneko eta Hakuishisa argitaletxea

Mussche (Kirmen Uribe)

Eleberria

Japoniera



2017

Yaroslav Gubarev eta Anetta Antonenko

Behi euskaldun baten memoriak (Bernado Atxaga)

Eleberria

Ukrainera

2018

Amaia Gabantxo eta Center for Basque Studies (University of Nevada, Reno)

Harri eta Herri eta Maldan Behera (Gabriel Aresti)

Poesia

Ingelesa



Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus